

## 5. AZTERKETARIA

### OROKORRA B2

Hizkuntza-maila zabala du, gai orokorren deskribapen argiak egiteko eta gai horiei buruz duen ikuspegia aditzera emateko modukoa, hitzen bila dabilela agerian utzi gabe, eta badaki hori lortzeko esaldi konplexuak osatzen.

Azterketariari asko kostatzen zaio ideiak garatzea eta irakurritako testuaren azalpena garatzea. Adierazi nahi duena adierazteko arazo handiak ditu. Etenak egiten ditu behin eta berriro, beharrezko hitza aurkitu nahian. Makulu-hitzak erabiltzen ditu ia jardun osoan (Baaa.... eeeee.....). Hala ere, gai da irakurri duenaren gaineko informazioa emateko, nahiz eta informazio hori oso orokorra den eta zailtasunak dituen xehetasunak emateko; esate baterako, asko kostatzen zaio txertoak zer diren definitzea eta atzera eta aurrera ari da definizio egokia asmatu nahian: ... *Txertoa da mikroorganismo baten antigenoak duen prestaki, prestaki, prestakizun bat eta hori aurkitu eta han jartzen dituzte antigenoak.*

Ahalegina egin behar da esaten duena ulertzeko, batik bat akats asko eta oinarrizkoak egiten dituelako sarritan (*Txertatu behar al dugu haurrak... / Pertsona bakoitza inmunitatea ez lortu...*). Ideia konplexuagoak edo abstraktuagoak adierazi behar dituztenean, zehaztasun eta argitasun falta du.

Ez ditu ideiak garbi adierazten, zailtasunak dituelako hitzak aukeratzeko orduan eta esaldiak bukatzerakoan. Diskurtso etena egiten du eta errepikapen ugariak eta diskurtso motelak asko luzatzen dute haren jarduna. Entzulearengan egonezina ere sor dezake.

### C1

Ongi menderatzen ditu hizkuntzaren hainbat alderdi, eta horrek aukera ematen dio **gai orokor, akademiko, profesional eta aisiakoei buruz argi eta estilo egokian** jarduteko formulazioa aukeratzeko, **esan nahi duenari mugak jarri gabe.**

Beraz, 1. azterketaria ez da gai C1 mailak eskatzen duena erakusteko, are gehiago, C1 mailaren langatik urrun dago.

## ZUZENTASUNA B1 (2)

Gramatika nahiko ongi menderatzen du. Zenbaitetan ulergarritasuna galaraz dezaketen akatsak egiten ditu, eta ez da gai egiten dituen akats gehienak antzeman arren zuzentzeko.

Gramatika-arauak ezagutzen baditu ere, oraindik dezente falta du horiek modu automatikoan erabiltzeko. Lehenago ere aipatu dira azalpen testuaren garapenean egindako hainbat zuzentasun arloko akats eta horiei gehitu behar zaizkie elkarreraginean egin dituenak (...*Gaur egungo zoologikoak ez daukate jaularik / ohituta daude gu ikustea*).

Lexikoan ere zailtasunak ditu, eta nahiz eta akats larriak egin ez da konturatzen: *ehiztari* erabili beharrean *hizlari*.

### C1

Gramatika-zuzentasun handia du: **akats gutxi** egiten du, **ez dira antzematen** errazak eta, oro har, akatsa **egin orduko zuzentzen** du.

Gramatika menderatzeko dezenteko tartea du oraindik, egindako akats asko eta asko oinarritzko egituretan egin baititu: ergatiboaren erabilera, aditz komunztadura ... eta ez ditu egin orduko zuzentzen; beraz, **ez du C1 maila erakutsi zuzentasunean**.

## JARIOA B2

Gai da diskurtso zatiak nahiko erritmo uniformearen sortzeko; dena dela, zalantza egin dezake egituren edo esamoldeen bila dabilenean. Eten luze gutxi egiten ditu.

Tarteka erritmoari eusten badio ere, oraindik diskurtso etena egiten du (*eee, ba ba...*). Gehienetan, zalantzaren bat, hitzen bat, gramatika-egituraren bat edo aditzen bat ahora ekarri ezinak eragindako etenak dira. Jario oso motela du, ziurtasunik ezak sortutakoa neurri handi batean.

### C1

Jarriotasunez eta bat-batean jarduten du, **ahaleginik ia egin gabe**. **Kontzeptualki zailak diren gaiekin bakarrik galtzen du** jarriotasuna adierazpenetan.

Ahalegina egin behar du adierazi nahi duena adierazteko, eta ez kontzeptualki zailak diren gaiak direnean bakarrik. **Ez du, beraz, C1 maila erakutsi jarioari dagokionez**.

## KOHERENTZIA B2

Kohesio-mekanismoen sail mugatua erabiltzen du bere esaldiekin diskurtso argia eta koherentea osatzeko, nahiz eta mintzaldia luzea denean nolabaiteko “urduritasuna” erakuts dezakeen.

Ez da gai, prestatzeko astia izan arren, gai konplexu samarrei buruzko azalpen egituratu eta argia osatzeko. Ez da gai argudioak nolabaiteko zabaltasunez eraiki eta azaltzeko, eten asko eta luzeak egiten ditu eta, ondorioz, testuaren koherentzia hankaz gora geratzen da.

### C1

**Diskurtso argia, jarioetasun handikoa eta ongi egituratua** sortzen du, eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu.

**Ez du C1 maila erakutsi;** izan ere, C1eko jardunak diskurtso argia, jarioetasun handikoa eta ondo antolatua izatea eskatzen du.

## ELKARRERAGINA B2

Badaki diskurtsoa hasten, une egokian hartzen du hitz egiteko txanda eta amaitu behar duenean amaitzen du elkarrizketa, beti dotoretasunez ez bada ere. Eguneroko gaii buruzko eztabaidetan parte hartzen du, solaskideari ulertzen diola berresten du eta solaskidea hizketara gonbidatzen du.

Azterketariak ideiak eta argudio-ildoak solaskideak ulertzeko moduan adierazten ditu, baina oso motel aritzen da parte-hartze gehienetan. Batzuetan, zailtasunak izan ditu xehetasunak emateko garaian. Solaskidearena ulertzen du, eta gai da erantzuteko; baina erreferentzia gutxi egiten dio hark esandakoari eta bereari eusten saiatzen da, nahiz eta horretan ere motel eta zalantzi agertzen den. Zailtasunak ditu ideia konplexuagoak adierazteko eta katramilatu egiten da.

Gutxitan amaitzen du bere jarduna; batzuetan solaskideak eteten duelako, eta, beste zenbaitetan, zer esanik ez daukalako.

Ez ditu aditz-denbora, aspektua eta ergatiboa ondo kontrolatzen eta hori zailtasun handia da esaten duena solaskideak ulertu eta diskurtso osatu bat garatu ahal izateko.

## C1

Diskurtoaren funtzioetan eskura duen sailetik **esaldi egokiak hautatzen ditu** bere oharrak egiteko, hitza hartzeko edo hitzari eusteko, eta **bere jardura eta solaskidearena trebetasunez uztartzeko.**

Beraz, **ez da gai** bere argudioak behar bezala hornitzeko eta bere jarduna eta solaskidearena trebetasunez uztartzeko; **ez du C1 maila erakutsi.**